

GETXO / Ipuinekin gozatzeko aukera izango dute bihar ume leioaztarrek

Bihar, asteartea, Leioako txikienek esnatuta amets egiteko eta gozatzeko aukera izango dute. Izan ere, bihar bisita ezaguna baina beti berezia dena jasoko dute, Maite Franko ipuin kontalariarena, alegia. Irundarrak istorioez beteriko saioa eskainiko die lau eta bederatzi urte bitarteko umetxoei Haur eta Gazte liburutegian. Hitzordua arratsaldeko 6etan jarri dute eta ipuinak euskaraz kontatuko ditu Frankok. 1971ean jaioa, Maite Frankok eskarmentu handia metatu du dagoeneko. Izan ere, ezagutzen dutenek diote txipiroi-arrantzale eta lehorreko lamia baten zazpigarren alaba dela. Antzerkigintza, bikoizketa, irakaskuntza eta literaturaren ur handietan igeri egindakoa da. Eta hori nahikoa ez eta 2004 urteaz geroztik, ipuinen ozeano barean dabil, harrez geroztik 800 saio baino gehiago eskainiz. Bertan, ahoz aho ibilitako ipuinak zein argitaratu berriak, jolas, asmakizun eta dramatizazioekin nahasten dira, umore, misterio eta 'mezu positiboak' barruan daramatzatelarik.

Aldiz, bere biografo gatzgabeek kontatzen dutenaren aburuz, Pedagogia eta interpretazioa ikasi ondoren, antzerkigintza, irakaskuntza eta literaturari ekin zizkion. Interpretazioaren munduan zenbait taldetan ibili ondoren (Irungo Katamitus, BAI eta Xalakabula taldeak) egun Legorretako Dar-dar produkzioak konpainian sartuta dabil, aktorea eta gidoigile bezala, aldi berean ikus-entzunezkoetan lan laburrak eginez.

Irakaskuntzan, euskara irakasle eta didaktikaria izan da AEK-n; baita Hondarribiko Ikastolan antzerki irakasle ere. Literaturan 2003 urtean eman zuen ezagutzera haurrentzako 'Ixone isilik' ipuina (Aizkorri). 2004 urteaz geroztik, hiru arloak bat eginik, ipuin kontalari dabil, hiru urte hauetan Euskal Herriko liburutegi eta eskola askotan izan da eta 300 saio baino gehiago eskaini ditu jada.